

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hilaren 20an, Kirola eta Emakumea I. Biltzarra egingo da Nafarroa Arenan

Nafarroako Gobernuaren Planaren barruan dago jarduera hau, beste batzuen artean emakumeen artean kirola sustatzea eta komunikabideetan haien irudi positiboa islatzea xede dituena.

Asteazkena, 2018.eko azaroak 14

Hilaren 20an, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua eta Cadena Ser antolatzaileen eskutik, [Kirola eta Emakumea Lehen Biltzarra](#) egingo da Nafarroa Arenan. Nafarroako Gobernuak 2017an sustatutako Kirola eta Emakumea Planaren barruan dago, beste batzuen artean emakumeen artean kirola sustatu eta jarduera fisikoa goizegi utz dezaten ekiditea eta komunikabideetan haien irudi positiboa igorri edo haien presentzia sustatzea eta kazetaritzako desberdinkeria baztertzea xede dituena. Jarduera doakoa da, eta aurrez izena eman behar da.



Ezkerretik eskuinera Hoyos, Zamora, Goñi eta Gallo, aurkezpenean zehar

Ekitaldiaren aurkezpenean egon dira Rubén Goñi Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendaria, Javier Hoyos Cadena Ser-en zuzendaria Nafarroan, Haizea Zamora pilotari eta padel- jokalaria, eta Cristina Gallo kirol-arloko kazetaria. Hain zuzen, Gallok emango dio hasiera hitzaldien tarteari, albistegietan emakumeek kirolean duten presentziari buruz hitz eginez.

Bestalde, Teresa Peralesek historiako igerilaririk sarituenak emakumearen arrakasta kirolean, amatasuna eta paralimpismoa izango ditu hizketa-gaitzat. Gainera, Leire Obalerria txirritululari olinpikoak amatasuna eta kirola uztartzearen erronkak azalduko dizkigu lehen pertsonan, errendimenduari eta kontziliazioari buruzko hitzaldiarekin.

Bestalde, mahai-inguru ezberdinak egingo dira, hainbat gai jorratzeko: desberdinkeria, ariketa fisikoaren garrantzia emakumearentzat, emakumeen marketina eta emakumeen oraina eta etorkizuna Nafarroako kirolean.

Maitane Melero atleta nafarrak emango dio amaiera biltzarrari, hitzaldi honekin: "Atleta y madre que mejora. Conciliación".

Kirola eta Emakumea I. Biltzarrak gizarteko eremu guztietan benetako berdintasuna lortzeko behar diren baliabideak erraztea eta tresnak aktibatzea du xede. Gainera, kirolariak eta beren kirol-jardueran emakume izanda bizitako esperientzia pertsonalak ezagutzera eman nahi ditu.

Ateratako ondorioak kirol-sektore ezberdinekin partekatu eta lan-mahaietan aztertuko dira gero.

Kirola eta Emakumea I. Biltzarrean izena eman daiteke helbide honetan: www.cadenaser.com. Plaza mugatuak dira.

